



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak, norgehiagoka araubidean emateko deialdia; garapenerako lankidetzako proiektuak eta herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako haurrentzako aldi baterako egonaldiak, 2025ean.

1. Oinarri arautzaileak.

Bi mila eta hamaseiko uztailaren hamalauko osoko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen onartzea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko garapenerako lankidetzako proiektuak eta herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako haurrentzako aldi baterako egonaldien diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 173/2016 alean argitaratu zen, irailaren 9an), eta, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hamabosteko osoko bilkuran erabaki zen aldatzea, (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 155/2017 alean argitaratu zen, abuztuaren 16an).

Hala oinarriak eta deialdia, nola eskabide-eredua eta gainerako eranskinak Amankomunazgoaren webgunean daude ikusgai: www.dma.eus.

Horrez gain, informazioa, eskabide-eredua eta eranskinak Amankomunazgoko bulegoan daude eskuragai; hau da, Landako Etorbidea, 4; 101 Modulua, Durangon.

Jendaurreko zerbitzua astelehenetik ostiralera eskaintzen da, 9:00etatik 13:00etara.

2. Diru-laguntzen helburua eta xedea.

Diruz lagun daitezkeen proiektuak deialdian adierazten diren 2025an garatu beharko dira eta helburu hauek bete beharko dituzte:

a) Herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako oinarritzko beharrei, osasun- edo hezkuntza-beharrei osoko arreta emateko kanpo-lankidetzako proiektuak.

b) Herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako hurrei, haien osoko garapenerako kaltegarriak diren gizarte- eta familia-egoeretan daudenei, aldi baterako harrera egiteko proiektuak, haien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, Amankomunazgoko udalerrietako batean egiten badira.

3. Gehieneko zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua.

Deialdiaren zenbatekoa, guztira, hoge mila eurokoa da -20.000,00 €- eta 2025ko aurrekontuaren 2310.481.05 sailari egokituko zaio; alegia, "Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak: Kooperazioa eta elkartasuna bultzatzeko proiektuak diru-laguntzak" atalari.

4. Emakidaren erregimena.

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da; eskabideak elkarrekin alderatuko dira, eta, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako publikitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, bereizkeria eza, eraginkortasun eta eragimen printzipioak bermatuko dira.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

5. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak eta egiaztatzeako erak.

Era honetako irabazi-asmorik gabeko erakundeek edo elkarteek izan ahalko dira deialdi honek eskainitako diru-laguntzen onuradunak:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Ofizialean izena emanda dutenak;
- b) sozietatearen egoitza Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako batean dutenak;
- c) diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzeko proiektuak dituztenak;
- d) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzen dituztenak;
- e) eta zazpigarren puntuan ezarrita dauden dokumentuak aurkezten dituztenak.

6. Diru-laguntzaren emakida izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak.

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Diru-laguntzen emakida onesteko eta ebazteko organo eskuduna presidentea edo horrek eskuordetutako organoa izango da, Herritarren Informazio Batzordeak proposatuta.

7. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliiodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak presidenteari zuzenduko zaizkio eta onuradunak edo, hala badagokio, legeko ordezkariak izenpetuko ditu.

8. Eskabideak aurkezteko era.

Diru-laguntzen eskabideak eredu ofizialean arabera izango dira (I. eranskina), eta bide telematikoen bidez aurkeztu beharko dira egoitza elektronikoan:

<https://www.dma.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=1e564add-d1ac-e211-b9d8-00237d32158c>

edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu dezake.

Diru-laguntza eskabidea guztiz beteta eta sinatuta egon beharko da, eta, horrekin batera, agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde edo elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
2. Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan izena emanda duela azaltzen duen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

3. Elkartearen identifikazio fiskaleko kodearen kopia konpultsatua.

4. Erakundearen estatutuen arabera erakundearen legezko ordezkaria denaren nortasun-agiri nazionalaren kopia konpultsatua.

5. Organoak eta ordezkaria izendatzeko akordioaren ziurtagiria, behar bezala dagokion erregistro ofizialean inskribatua.

6. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.

7. Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, erakundea diru-laguntzak eskuratzetik desgaituta ez dagoela esaten duena (II. eranskina).

8. Erantzukizunpeko adierazpena, diru-laguntzarako aurkeztu den proiekturako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo horietatik jasotako diru-laguntza edo laguntzak azaltzen dituen (III. eranskina).

9. Proiektuaren sarrera- eta gastu-aurrekontu zehaztua (IV. Eranskina).

10. Diru-laguntza eskatzeko kanpo-lankidetzako edo aldi baterako egonaldia egiteko proiektu zehatza, jarduera, helburuak, partaideen kopurua eta kostu ekonomikoa zehaztuz.

Nahitaez, zehatz agerrarazi beharko dira programa edo jarduerak hasteko edo amaitzeko aurreikusi diren egunak.

11. Diru-laguntza emateko alegatutako merezimenduei buruzko egiaztagiriak.

12. Elkartearen titulartasuneko kontua, banku-erakundeak behar bezala ziurtatuta (V. eranskina).

9. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Jarraian ezarri diren balorazio-irizpideak oinarri hartuta esleituko dira diru-laguntzak, emandako haztapenaren arabera:

a) Elkarteari buruzko irizpideak:

1. Erakundearen jarraitutasuna eta egonkortasuna: gehienez 10 puntu.

2 urtetik 5 urtera: 2 puntu.

6 urtetik 8 urtera: 5 puntu.

8 urte baino gehiago: 10 puntu.

2. Emakumeek zuzendaritza-batzordean parte hartzea: gehienez 5 puntu.

Ez dago emakumeen ordezkariarik zuzendaritza-batzordean: 0 puntu.

Gehienez zuzendaritza-batzordeko kideen % 50: 2 puntu.

Zuzendaritza-batzordeko kideen % 51 baino gehiago: 5 puntu.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

b) Programei buruzko irizpideak:

1. Proiektuaren kalitate teknikoa eta koherentzia: gehienez 55 puntu.

Helburuak: gehienez 15 puntu.
Jarduerak: gehienez 15 puntu.
Metodologia: gehienez 10 puntu.
Justifikazioa: gehienez 5 puntu.
Ebaluazioa: gehienez 5 puntu.
Baliabideak: gehienez 5 puntu.

2. Proiektuaren eremu geografikoa: gehienez 10 puntu.

Sahara, Kurdistan edo bestelako estaturik gabeko nazioetan egindako kanpo-proiektuak eta jatorrizko herrialde horietako haurrak hartzeko proiektuak: 9 puntu.

Erdialdeko Amerika, Hego Amerika eta Afrika: puntu 1.

0,4 baino gutxiagoko GGI (giza garapenaren indizea): 9 puntu.

0,401 eta 0,479 arteko GGI: 7 puntu.

0,480 eta 0,570 arteko GGI: 6 puntu.

0,571 eta 0,620 arteko GGI: 4 puntu.

0,621 eta 0,669 arteko GGI: 2 puntu.

0,670 eta 0,695 arteko GGI: puntu 1.

3. Programaren jasotzaileak: gehienez 10 puntu.

Haurrak 10 puntu.
Emakumeak 7 puntu.
Biztanleria oro har 3 puntu.

4. Euskararen tratamendua eta erabilera: gehienez 5 puntu.

5. Genero-ikuspegia: gehienez 5 puntu.

Proiektua hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista kontuan hartuta aurkeztea: gehienez 5 puntu.

Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, erakunde eskatzaileak gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu.

10. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera izango da, eta kualitatiboki eta kuantitatiboki beharrezkotzat onartutako diruz lagun daitekeen oinarriaren % 85ekoa izan daiteke, gehienez, jarduera egiteko.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Ehuneko hori zuzendu egingo da, aurreko artikuluan aipatutako irizpideen arabera programei egiten zaien balorazioaren ondoriozko zuzenketa-koefizientea erabiliz.

Edozein modutan ere, kanpoaldeko lankidetzaren proiektuetarako entitate bakoitzak jaso ahal duen diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 3.000,00 € izango da eta haurrak aldi baterako hartzeko proiektuetarako entitate bakoitzaren diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 € izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantziakzioa egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

11. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazpena egin eta jakinarazteko epea, gehienez, sei hilekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsitzat jo ahal izango dute.

12. Jakinarazteko bideak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 43. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.

13. Errekurtsoak.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean. Dena dela, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Presidentea, Idoia Otaduy Uriarte andrea.